



Gaurko egunez duela 57 urte Aberri Eguna ospatu zuten Donostian

ARGIA/LA HAINE :: 14/04/2025

Deialdia ilegala izan arren, 8.000 lagunetik gora mobilizatu ziren. Hala ere, agintariak setio egoera ezarri zuten eta indar errepresiboak manifestarien kontra oldatu ziren, 300 pertsona atxilotuz.

1968ko apirilaren 14an, Aberri Eguna ospatu zuten Donostian. Egun hartan, agintariak setio egoera ezarri zuten eta Polizia Armatu frankistak hiriko sarbide guztiak itxi zituen goizean goizetik. Erregimenaren egunkariak gobernadorearen oharra argitaratu zuten, gogoraziz deialdia ilegala zela. Erdialdearen eta Grosen arteko zubietan, adibidez, hesi militarrek jarri zituzten. Hala ere, 8.000 lagunetik gora bildu ziren giro itogarri hartan eta indar errepresiboek gogor oldatu ziren manifestarien aurka. Osotara 300 pertsona atxilotu zituen Poliziak eta zauritu ugari egon ziren. Donostian mobilizatu ezinik, Errenteria eta Arrasaten ere manifestazioak egin zituzten. Giroa pil-pilean zen eta etengabeko kargen eta atxiloteten ondorioz, atzerriko kazetari batzuek egun hura "Donostiako bataila" izendatu zuten.

<https://eh.lahaine.org/gaurko-egunez-duela-57-urte>